

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ika

ETXETIK PLAZARA

*euskal
zinema* ★
PARADISO

2

SARIA:

Lesakako
LINDURRENBORDA
SAGARDOTEGIAN
bi lagunentzako
otordua

2020ko OTSAILA

166. ALEA

IRAKURLAN



EUSKAL ZINEMAGINTZA II

Esku artean duzun Etxetik Plazara ale honetan, euskal zinemagintza izanen dugu hizpide. Gai horri buruz, 128. alean aritu ginen, 2012. urtean, baina geroztik, zinema-munduan dihardutenek lan eta lan jarraitu dute, eta fruitu oparoak utzi dizkigute. Hortaz, azkeneko urteetan argitaratu diren sorkuntzen berri emanen dizugu hurrengo lerrootan.

Joan den urteko Donostiako Zinemaldiari, 67. edizioari, begiratzen badiogu, pentsatzen ahalko dugu euskal zinemagintza nahiko osasuntsu dabilela, Euskal Herriko hogeita bat filmek hartu baitzuten parte. Horietatik, hamahirutan solastatzen da euskaraz. Baina, dena dela, Sail Ofizialerako ez zuten euskarazko pelikula bakar bat ere aukeratu.

Zinemaldiko Euskal Zinemaren Irizar sarirako, Asier Altuna eta Telmo Esnal zuzendarien *Agur Etxebeste!* filma lehiatu zen, baina azkenean, saria bertze euskal produkzio batek eraman zuen: Moriarti ekoiztetzekoen *La trinchera infinitak*, hain zuzen ere.

Urte batzuk gibelerat begiratzen badugu, sona dezente lortu zuten hainbat pelikularekin eginen dugu topo: 2014an, *Loreak* (Zinemaldiko Sail Ofizialean aukeratua izan zen bigarren filma), eta *Lasa eta Zabala*; film gordin bezain hunkigarria. Urte bat geroago, 2015ean, Asier Altunaren *Amama* film luzea etorri zen; Goya sarietara izan zen izendatua aktorerik onenarengatik.

2017. urtekoak dira *Handia*, Altzoko erraldoiarengan oinarritutako istorioa, eta Paul Urkijo zuzendari gaztearen *Errementari*: biak ala biak Netflix plataforman daude ikusgarri. Azkenik, 2018an, Koldo Almandozen *Oreina* filma argitaratu zen; horrek ere Irizar saria eskuratu zuen Zinemaldian. Eta, nola ez, hain arrakastatsua izan den Telmo Esnalen *Dantza*, non 250 dantzarik baino gehiagok hartu zuten parte tradizioaz, lurraz, jendeaz, mitoez zein ohiturez solastatzen den film poetiko horretan.

Ikusten duzunez, aipatu ditugun ikus-entzunezko guziak fikziozko film luzeak dira, baina urte hauetan guztietan, bertzelako lan mota batzuk ere argitaratu dira: film laburrak eta dokumentalak, errate baterako. Hortxe kokatuko genituzke *Gutik Zura* (2016), *Mugaminak* (2016), *Pasaiako Badia* (2017), *Alardearen Seme-alabak* (2013)... bezalako dokumentalak, zerrenda luze baten barrenean.

Bukatzeko, aipatu nahiko genuke gure eskualdean gero eta pelikula gehiago grabatzen direla, eta ohiko eszena bihurtzen ari direla gure paisai eta txokoak. Hori ere euskal zinemagintzaren osasunaren seinale delakoan gaude.

LAN ETALAN



Ale honetako lanketan, konparazioetan agertzen diren **hain** eta **hainbeste** partikulak landuko ditugu. Erran bezala, konparazioak egiteko erabiltzen dira, baina berdintasunezko kasuak direlarik. Hala, konparatzen dugunak nolakotasuna adierazten duelarik (nola dagoen edo nolakoa den), **hain** partikula erabiliko dugu:

Adibidez:

- Gure etxea ez dago hain zikin.
- Irakasle horiek ez dira hain gaiztoak.
- Zer duzu, bada, hain kontent egoteko?

Konparatzen dugunak, aldiz, zenbatasuna adierazten baldin badu (kopurua), **hainbeste** partikula erabiliko dugu, hain beharrean.

Adibidez:

- Noiz ikusi duzu hainbeste jende kontzertu batean?
- Hainbeste jaten badu, loditu egingen da.
- Zer egingen dugu hainbeste gozokirekin?

Garbi gelditu al zaizu noiz erabili **hain eta noiz **hainbeste**? Ea, bada! Orain zure txanda izanen da; osatu ondoko esaldiok dagokien kasuarekin:**

1. Kotxez etorri badira, zergatik ailegatu dira berandu?
2. lo egin eta gero, nola egingen duzu lo gauean?
3. argal ikusi zintudalarik, izutu egin nintzen.
4. Ez dakit nola erraten ahal diren tontokeria denbora laburrean.
5. Nork saldu dizkio Asierri liburu?
6. Bakailaoa ez zait batere gustatzen, eta gutxiago gazi.
7. gustatu al zaizu emanaldia?
8. Nola da posible aldiz erortzea leku berean?
9. itsusia iduritu al zaizue nire jertse berria?
10. sagu ikusi zituenean, lasterka joan zen.
11. Zergatik bizi da urruti?
12. Zergatik kexatzen zara?



JOLAS-NAHAS

GURE FILM-BAZTERRAK

Gure eskualdeetan filmatutako pelikulen zerrenda luzea da, berrogeiren bat. Azkene-ko urteotan gure inguruan filmatutako bortsu pelikula zerrendatu ditugu (zuzendaria eta lekua aipatuta). Bigarren zutabearen, euskal zinemak 2013tik eman duen pelikula sorta ederra prestatu dugu (zuzendaria eta aktore nagusia zehaztuta). Bi tauletatik izen batzuk beheko klaketara erori zaizkigu. Karteldegia behar den bezala osatzen baduzu, gure Oskarra irabaziko duzu!

PELIKULA	ZUZENDARIA	LEKUA
LAS BRUJAS DE ZUGARRAMURDI (2013)	Alex de la Iglesia	Zugarramurdi
GUARDIAN INVISIBLE (2017)	Fernando Gonzalez	Baztan
LEGADO DE LOS HUESOS (2019)	Fernando Gonzalez	Baztan
DANTZA (2019)	Telmo Esnal	_____ 1 _____
NESKATOAK (DOKUMENTALA, 2016)	_____ 2 _____	Bortziriak, Malerreka, Baztan

PELIKULA	ZUZENDARIA	AKTORE NAGUSIA
AMAREN ESKUAK (2013)	_____ 3 _____	Ainara Gurutzarraga
LOREAK (2014)	Jon Garaño, Aitor Arregi, Jose M ^a Goenaga	Nagore Aranburu
LASA ETA ZABALA(2014)	Pablo Malo	_____ 4 _____
GERNIKA (2016)	_____ 5 _____	Maria Valverde
HANDIA (2017)	Aitor Arregi	_____ 6 _____
ERREMENTARI(2017)	Paul Urkijo	Kandido Uranga
OREINA (2017)	_____ 7 _____	Laulad Ahmed Saleh
AGUR ETXEBESTE (2019)	Telmo Esnal	_____ 8 _____

A- Unax Ugalde

B- Elena Irureta

C- Leitzza

D- Koldo Almandoz

E- Koldo Serra

F- Eneko Sagardoy

G- Mireia Gabilondo

H- Jon Abril



BITXILOREAK

Euskal zinema eta Euskal Herrian ekoizten den zinemari buruzko zenbait bitxikeria irakur ditzakezu segidan. Testuan, hitz batzuk azpimarratu ditugu, eta behean dagozkien balio-kideak paratu ditugu. Baietz ongi parekatu!

ERNE SARIRAKO!

Azken urteotan, Nafarroa **aukeratu (1)** da Euskal Herriko edota nazioarteko mailan **ospe (2)** handia izan duten pelikulak filmatzeko. Zazpigarren artearen aurpegi ezagunak ikusi ditugu gurean, hala nola, Oscar saria eskuratua duten Javier Bardem, Penélope Cruz, Imanol Arias, Cameron Díaz edo Martin Sheen. Edota Estatu Espainiarreko panoramako aktore ugari; besteak beste, Carmen Maura, Hugo Silva, Mario Casas, Clara Lago, Carmen Machi, Karra Elejalde edo Dani Rovira. *Ocho apellidos vascos*, *Zugarramurdiko sorginak*, *Anacleto, agente secreto* filma (Imanol Arias protagonista duena), Dolores Redondo idazleak Baztanen girotutako trilogia edo *The Counselor* filmetako ikusle asko eta asko Leitza, Zugarramurdi, Bertiz, Lesaka, Errege Bardeak, Baztanera... hurbildu dira. Hala, irria, beldurra, harridura edo emozioa **eragin (3)** zieten eszena haiek gogora ekartzeko **aukera (4)** izan dute. Nafarroako hainbat paisaia filmaziorako leku ezin hobeak bihurtu dira, eta ikus-entzunezkoen sorta ugaria eman da (2018an 95 lan **kudeatu (5)** ziren eta 156 filmazio egun izan ziren).

Euskal Herriko zinemagintza **oparo (6)** eta arrakastatsuen boladan bizi garela aprobetxatu beharko genuke gure hizkuntza eta kultura munduan zehar zabaltzeko. Azken urteotako hainbat filmek hori lortu dute: ba al zenekien *Errementari* filmeko herritarrak Arabako euskalkian mintzo direla? Beste pertsonaia batzuek euskara batua darabilte: liberalek, hiritarrek eta deabruak. Narrazioa, aldiz, Ataungo euskaraz solastatzen da, istorioa jaso zuen Barandiaran Ataundarrari **keinu (7)** eginez.

Ba al zenekien *Dantza* filmean 20 dantza baino gehiago jaso eta egokitu direla? Errate baterako: Espata-dantza, "espata" zomorroen dantza izurritearen aurkakoa bihurtuta. Ur gainean dantzatzen diren mozorro berde, urdin eta horiak zomorroak dira. Izurriteak **uxatzeko (8)** egiten omen zen sua. Filmeko dolareko eszenetan, dantzariak kutxa gainean zortzikoak dantzatzen ikusteak **liluragarri (9)** bilakatu du pelikula.

Ba al zenekien *Handia* filmak 2018an 10 Goya Sari **eskuratu (10)** zituela (13 izendapen zituen)? Sari kopuru horrekin, Goyen historian sari gehien jaso dituen hirugarren filma bihurtu da, *Mar Adentro* eta *Ay, Carmela*-ren atzetik. Goya batzuk aipatzeagatik: gizonezko aktore berri onena (Eneko Sagardoy); gidoi original onenaren saria (Jon Garaño, Jose Maria Goenaga eta Aitor Arregi); jatorrizko musika onena (Pascual Gaigne); argazki zuzendari onena, zuzendari artistiko onena, jantzi diseinu onena, efektu berezi onen saria...

Etorkizun ederra opa diogu gure zinemagintzari. Espero dezagun euskaraz egiten diren filmek gure paisaiak eta hizkuntza zabal ditzaten. Hori izanen litzateke Goya, Oscar edo saririk preziatuena.

- A- emankor, aberats, jori _____
B- erdietsi, lortu _____
C- hautatu _____ D- imintzio _____
E- parada, abagunea _____
F- urrunarazteko, aldentzeko _____
G- xarmagarri, xoragarri _____
H- administratu _____ I- eginarazi _____
J- entzute, fama _____

ZEIN OTE?

EUSKAL AKTOREEN CASTING-A 2

Ezagutzen al dituzu euskal aktore horiek? Izenak hemen azpian harrapatuko dituzu, baina osatu gabe daudenak irudiekin lotu beharko dituzu.

- | | | | |
|-----------------------|-------------------|---------------------|------------------------|
| 1. Iraia Elias | 5. Gorka Otxoa | 9. Joseba Usabiaga | 13. Josean Bengoetxea |
| 2. Iñigo Aranbarri | 6. Itziar Lazkano | 10. Miren Gaztañaga | 14. Egoitz Lasa |
| 3. Aitziber Garmendia | 7. Itziar Ituño | 11. Jon Plazaola | 15. Arkaitz Gartzandia |
| 4. Nagore Aranburu | 8. Eneko Sagardoy | 12. Nerea Gorriti | 16. Ainara Gurrutxaga |



A



B



C



D



E



FIraia Elias.....



G



H



IAinara Gurrutxaga....



J ..Josean Bengoetxea..



K



L ..Arkaitz Gartzandia...



MEgoitz Lasa.....



N



O



P ...Nerea Gorriti...

ERANTZUNAK

LAN eta LAN (3. or.):

1- hain; 2- hainbeste; 3- hain; 4- hainbeste/hain; 5- hainbeste; 6- hain;
7- hainbeste; 8- hainbeste; 9- hain; 10- hainbeste; 11- hain; 12- hainbeste.

JOLAS-NAHAS (4. or.):

1- C, 2- H, 3- G, 4- A, 5- E, 6- F, 7- D, 8- B

ZEIN OTE? (6. or.):

A- 4; B- 8; C- 7; D- 9; E- 11; F- 1; G- 2; H- 10; I- 16; J- 13; K- 3; L- 15; M- 14; N- 6; O- 5; P- 12

165. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):

1- m; 2- e; 3- i; 4- l; 5- g; 6- h; 7- a; 8- f; 9- d; 10- d; 11- n; 12- c; 13- b; 14- j

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabaz-learen izena agertuko dira.

166. aleko SARIA:

**Lesakako
LINDDURRENBORDA
sagardotegian bi
lagunentzako otordua**

165. aleko irabazlea:

**Iraia Jaurena Etchart
Urdazubikoa**

ETXETIK PLAZARA liburua DEBALDE!!

**Eska ezazu,
Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko
IKA euskaltegietan**




OHARRA: erantzunak otsailaren 20a baino lehen bidal itzazu.

SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. OR.):

a - _____ f - _____
b - _____ g - _____
c - _____ h - _____
d - _____ i - _____
e - _____ j - _____



EP 166 (2020/02)



ZATOZ EUSKARAREN gimnasiaora!!



Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Nafarroako
Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**

**euskara INDARTU nahi duzu?
ZATOZ euskaltegiko GIMNASIORA!!**

zeure herrian,
ekainera arte,
astean 4 orduz,

MAILA GUZTIAK

%100 DIRUZ lagundua!!

Matrikula zaitez:

IKAbortziriak, 948 637 796, bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

IKAmalerreka, 948 451 555, malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

 **euskara
errazago
egiten**

Laguntzaileak:

**MALERREKAKO EUSKARA
MANKOMUNITATEA**

 **BORTZIRIETAKO
EUSKARA
MANKOMUNITATEA**

 **euskarabidea**

ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefonoa:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortziriako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

**ika**